

ARRASATE **Bizirik!**

ARRASATEKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUEN ALDIZKARIA • 11. zenbakia • 2011ko uztaila



04 **Mejor servicio**

Trabajando por el comercio excelente

06 **Protagonista**
Jose Luis Armendia

08 **Ibai-Arte ekimenak**
Uneoro bezeroak saritzen

12 **Arrasateko historia**
Lezetxiki, jatorriaren leizea



Arraindegia
BASOARTE S.A.



Isabel

☎ 943 77 04 57
☎ 637 80 21 53

Araba etorb., 16 - SAN ANDRES
20550 ARRASATE-MONDRAGON
(Gipuzkoa)

☎ Bulegoa: 94 683 07 45

ONGI ETORRI IBAI-ARTEko bazkide guztioi!!!

EROSKI bidaiak
zuzen

%10
-eko
deskontua*

Zuen bazkide txartela ekarriz gero,
Kostak eta **Galizia/Portugal**
produktuetan **%10-eko deskontua**
izango duzue*.

* Beste edozein deskontu edo eskaintzari ez zaio gehituko eskaintza hau. Reserbak egiteko epea irailak 30.

EROSKI bidaiak
Maisu Arano - Arrasate

☎ Zuek ezagutzeko irrikitan gaudel! Etorri eta **Turkia** edo
Kariberako bidaietako **zozketan** parte hartuko duzue.

☎ Tfnoa.: 943 771 711
v0117@viajeseroski.es



Arraindegia
BASOARTE S.A.



Ana, Loli eta M.Carmen

☎ 943 77 16 79
☎ 600 47 43 82

Olarte, 3
20550 ARRASATE-MONDRAGON
(Gipuzkoa)

☎ Bulegoa: 94 683 07 45

04 **Mejor servicio** Trabajando por el comercio excelente



06 **Protagonista** Jose Luis Armendia



07 **Elkartea** SUDC elkarte



08 **Ibai-Arte ekimenak** Uneoro bezeroak saritzen



10 **Gurea ezagutzen** Errementari dantza



11 **Motzean • Breves**



12 **Arrasateko historia** Lezetxiki, jatorriaren leizea



14 **Udaletik** Desde el Ayuntamiento



Argitaratzailea: Ibai-Arte
175 p.k. • 20500 Arrasate (Gipuzkoa)
Tel.: 943 79 30 90 • www.ibaiarte.com

Egilea: Arteman komunikazioa
Argazkiak: Arteman komunikazioa / Josetxo Aranzabal / Imanol Soriano
Ale kopurua: 9.000
Lege gordailua: SS-1726-2008

Zailtasunei aurre eginez

*Ante las dificultades,
iniciativa*



Gabino Yarza / Ibai-Arteko presidentea

Eskuarteak daukazu Arrasate Bizirik aldizkariaren aurtengo bigarren alea, Arrasateko saltokiek eta zerbitzuek gure jardueren berri emateko erabiltzen dugun tresna.

Aurtengoa urte korapilatsua izaten ari da, baina Ibai-Arte ez dugu amorrik eman. Urtea gogor hasi genuen Merkemerkaia 2011ekin eta bere arrakasta ikusita bigarren edizioa prestatzen gabiltza. Adi egon, berrikuntza beteta datorrelako.

Gure saltokietako asko 'Merkataritza Bikaina'-ren erronkan murgildu dira

Urtean zehar opariak zozketatu ditugu Ibai-Arte txartela erabiltzen dutenen artean. Aipagarriak dira ekainean zozketatutako 100€-ko txekeak eta hilabete bukaera arte oparitzen gabiltzan afariak. Txartela erabiltzen jarrai dezazun animatzen zaitugu, kanpainak urte amaiera arte jarraituko dute-eta! Hilero ekimen berri bat abiaraziko dugu eta hurrengo saritua zu izan zaitezke. Informazioa jasotzeko, sartu Ibai-Arteren facebookera.

Egunetik egunera gure zerbitzuen kalitatea hobetzen eta zuen saltokiez harroago senti zaitezten lanean dihardugu. Hala, gure saltokietako asko 'Merkataritza Bikaina'-ren erronkan murgildu dira.

Udalbatza berriari agur bero bat ematen diogu eta gure arteko harremana gutxienez orain artean bezala jarrai dezan desio dugu.

Udaz goza dezazuela.

En tus manos se encuentra la segunda publicación del año de Arrasate Bizirik, la herramienta que utilizamos los comercios y servicios de Arrasate para acercarnos a ti y mantenerte informado de nuestras actividades.

Está siendo un año complicado, pero Ibai-Arte no se rinde. Comenzamos el año fuerte con Merkemerkaia 2011 y debido a su éxito no tardaremos en realizar una segunda edición. Estar atentos porque vendrá cargado de novedades.

Este año hemos repartido premios a los usuarios de la tarjeta Ibai-Arte. Hemos sorteado cheques de 100€ en junio y cenas que se seguirán regalando hasta finalizar julio. Os animamos a seguir utilizándola porque ¡las campañas seguirán hasta fin de año! Te seguiremos sorprendiendo con más iniciativas y el próximo premiado puedes ser tú. Infórmate en nuestra página de facebook.

Muchos de nuestros establecimientos se han enfascado en un reto importante como es el 'Comercio Excelente'

Queremos seguir mejorando la calidad de nuestros servicios para que os sintáis más orgullosos de vuestro comercio. Muchos de nuestros establecimientos se han enfascado en un reto importante como es el 'Comercio Excelente'.

Nos gustaría enviar un cordial saludo a la nueva corporación, y deseamos seguir manteniendo relaciones igual o más fluidas que hasta ahora.

Esperamos que disfrutéis del verano.





MEJOR SERVICIO

Trabajando por la excelencia en el comercio

Cuatro comercios de Arrasate han recibido el certificado UNE 175.001 que acredita el trabajo realizado por los mismos para incidir en la mejora de su servicio y dar pasos hacia la excelencia en su trabajo.

Arrasate Optika, Ekobai, Sikol y Tamayo son los cuatro negocios arrasatearras asociados a Ibai-Arte que aceptaron la invitación realizada en 2010 por la Oficina de Dinamización para el Comercio del Alto Deba para participar en el programa de Comercio Excelente impulsado por el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo. Este programa pionero en el País Vasco persigue, mediante una metodología sencilla, crear, establecer y seguir un sistema de gestión en los comercios que asegure su competitividad y crecimiento.

Para conseguir el objetivo de Excelencia en el Comercio existen tres niveles de certificación. El primero de ellos, logrado por Arrasate Optika, Ekobai, Sikol y Tamayo, cumple la norma UNE 175.001-1 que regula la atención al cliente. Los responsables de los comercios asistieron a un curso de formación con el fin de mejorar su oferta. Tras aplicar sus nuevos conocimientos a su establecimiento fueron visitados por personal de Aenor, empresa de normalización y certificación de calidad. Los técnicos verificaron el cumplimiento de los requisitos fijados en el área de atención al cliente

Existen tres niveles de certificación hasta llegar a la Q de Oro en Excelencia en el Comercio

revisando el grado de compromiso, así como el grado de proceso hacia los objetivos fijados.

Ayuda de un tutor

Los siguientes pasos, el nivel intermedio y el avanzado, requieren también de un autodiagnóstico, una formación en su plan de mejora y una evaluación. Todo ello con la ayuda de un tutor. A diferencia del primer nivel, se incide con más persistencia en las siguientes áreas: personal, recursos, clientes y procesos, resultados y estrategia empresarial. Tras la evaluación, en función de la puntuación obtenida, se hace entrega del reconocimiento correspondiente: Q excelencia es nuestro objetivo, Q bronce, Q plata o Q oro.

Desde la Oficina de Dinamización del Comercio del Alto Deba han querido puntualizar lo "interesante" que es para los comer-

DOS DE LOS NEGOCIOS QUE HAN RECIBIDO EL RECONOCIMIENTO

¿Qué ventajas os ha proporcionado haber participado en el curso por la Excelencia en el Comercio?
¿Animaríais a otros comerciantes a hacerlo?



Yolanda Sanchez / Sikol

Es verdad que los comerciantes, sobre todo condicionados por el horario de nuestros negocios, disponemos de muy poco tiempo, pero aún así decidimos hacer un esfuerzo y apuntarnos; y tenemos que decir que estamos muy contentas. No nos ha supuesto mucho trabajo y el resultado merece la pena, aunque es verdad que muchos de los requisitos contemplados ya los cumplíamos con antelación. Los comercios locales siempre hemos

intentado personalizar el trato con el cliente y diferenciarnos en nuestra medida; esa es nuestra baza más importante. Por eso, cuidamos mucho la forma de atender a los clientes y nuestro modo de trabajar. Nosotros llevamos 23 años trabajando en Sikol y muchas veces te guías por tu instinto. Este curso ha valido para darnos cuenta de que estamos trabajando bien. Deberíamos de participar más en los cursos ofertados por Ibai-Arte.



Salomé Cabrera / Arrasate Optika

Tuvimos conocimiento del curso por medio de la Oficina de Comercio y decidimos apuntarnos. A lo largo del mismo hemos revisado nuestra oferta y no nos ha costado demasiado trabajo pasar los requisitos: algunos eran básicos. Yo animaría a todos los comercios a hacerlo, porque independientemente de obtener dicho certificado, durante el periodo de formación hemos aprendido bastantes cosas. Muchas veces a

los comerciantes al ser autónomos nos faltan segundas opiniones a la hora de tomar las decisiones y los consejos siempre son de mucha ayuda. Por otra parte, también sirve para ratificar tareas que ya desempeñábamos anteriormente, para saber que vamos en la buena dirección. También quisiera agradecer a Ibai-Arte la predisposición que tiene a la hora de facilitar cursos de mejora; y los comerciantes deberíamos participar más.

Estos cursos de Calidad están subvencionados al 100% por el Gobierno Vasco

comerciantes locales participar en el programa, ya que "les ayuda a ver su negocio con otra perspectiva más global". También concluyen en que "facilita e impulsa la incorporación efectiva del comercio en la mejora continua y en la obtención de mejores resultados para el comercio". Han querido recordar que el programa está subvencionado al 100% por el Gobierno Vasco.

Tres comercios a por el siguiente nivel

Tres de los cuatro negocios arrasatearras, satisfechos con los resultados obtenidos en el nivel básico, han decidido seguir dando pasos hacia la excelencia y ponerse manos a la obra para pasar al siguiente nivel. No son los únicos comercios que este 2011 se han animado a formar parte del proyecto. ¡Suerte a todos!



MERKATARITZAREN ESKAINTZA HOBETUZ

Arrasate Optika, Ekobai, Sikol eta Tamayo dira Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak abiarazitako Bikaintasun Merkataritzaren programan parte hartu duten Ibai-Arteko saltokiak. Euskal Autonomia Erkidegoan guztiz berritzailea den programa honen helburua da negozioen kudeaketa hobetzea eta horrela saltoki horien lehiakortasuna eta hazkundera berritzea. Merkataritza Bikaintasun gorenaren lortzeko hiru maila daude. Aipatutako saltokiek eskuratutakoak bezeroarenganako arretan jartzen ditu indarrak. Eta orain horietako hiru bikaintasunaren mailatan gora egiteko lanean jarri dira.



Jose Luis Armendia

Arrasateko Yoga Elkartearen fundatzailea

“Gaur egun presaka gabiltza eta galdetzeko interesa eta ohitura galdu da”

Jose Luis Armendia duela 33 urte hasi zen yoga praktikatzen. Hasieratik lagundu dio yogak asma arazoei aurre egiten, baina, batez ere, yogaren inguruan sortzen zen giro onak bultzatu zuen elkarte bat sortzera. Abenduan erretiratu zen eta orain idazteari eskaintzen dio denbora.

Ikasle izanik, nolatan erabaki zenuen irakasle izatea?

Yoga taldean sortzen zen giroa oso ona zen eta taldean ginen hiru lagunek ideia berdina eduki genuen. Zerbait gehiago egin behar zela pentsatu genuen, jendeak oso gustura hartzen baitzuen parte ekintzetan. Orduan, elkarte bat sortzea erabaki genuen irakaslearen laguntzarekin.

Irakaslea kanpora joan zenean, zerbait gehiago egin eta aurrera jarraitu nahi nuen, eta Kanadara joatea erabaki nuen, irakasleak han ikasi zuela esan baitzidan. Handik bueltatu nintzenean, jende asko zegoen yogarekin interesaturik eta askok goizetan ere eskatzen zituzten eskolak. Beraz, ausarta izan nintzen eta aurrera egitea erabaki nuen. Dena ondo atera zen eta gaur egun, ez naiz damutzen.

Duela 30 urtetik hona, aldatu dira yoga klaseak?

Giroan nabaritzen da gehienbat. Lehen gauza ezezaguna eta berria zen. Jendeak eskolez gain, beste ekintza batzuk eskatzen zituen. Asteburuetan ikastaroak, kanpaldiak, mendira irteerak...egiten genituen, baina orain ez da horrelakorik eskatzen. Eskolatan ere nabari da aldaketa. Lehen, jendea galderak egiten geratzen zen. Orain, berriz, presaka gabiltza eta bost minututan lokala hutsik geratzen da. Jendearen galdetzeko ohitura eta interesa galdu egin da.

Jende askok lasaitzeko teknika moduan erabiltzen du yoga...

Gaur egun presaka bizi gara eta jendeak lasaitasuna bilatzen du, baina lasaiketa yogaren zati bat baino ez da. Yoga ulertzeko bost



oinarri daude: lehenengoa, ariketa fisikoak dira, dinamikoak eta estatikoak; bigarrena, arnasketa; hirugarrena, lasaiketa; laugarrena, elikadura; eta bosgarrena, pentsaera baikorra, meditazio eta kontzentrazio teknikak.

“**Jendeak lasaitasuna aurkitu nahi du, baina lasaiketa yogaren zati bat baino ez da; yogak gauza gehiago ditu**”

Yoga aulkian izeneko liburua idatzi zenuen. Zer dela eta?

Bai, *Yoga aulkian* euskaraz, eta *Yoga en la silla* gazteleraz. 16 urte egin nituen Bergarako erretiratuekin yoga lantzen eta zerbait eskaini nahi nien.

Orain, lurrean egiten den yogarekin jarraitu nahi dut eta bigarren liburua idazten ari naiz. Liburu honek hiru zati izango ditu: teorikoa, praktikoa eta 'fitxa terapeutikoa'.

Yoga bateratua izango da bigarren liburuaren izenburua. Batak eta besteak erakusten duenarekin bat egin behar da, baita beste teknika mota batzuekin ere: terapia, sendabelarrak...

Nolako etorkizuna du yogak Arrasaten?

Nik uste dut aurrera egingo duela, bai Arrasaten baita inguruan ere. Aldaketa egon da, hasieran gu ginen bakarrak, orduan kanpotik etortzen ziren. Baina orain, leku guztietan erakusten da yoga, bananduta dago yoga. Hala ere, bananduta egon arren, etorkizuna badauka. ■

MAESTRO DEL YOGA

Jose Luis Armendia comenzó a practicar yoga hace 33 años. El yoga le ha ayudado con el asma, pero fue el buen ambiente del grupo lo que le animó a crear Arrasateko Yoga Elkarte. Afirma que hoy en día vivimos con prisa y que la gente ha perdido el hábito de preguntar. Aún así, Jose Luis confía en que el yoga siga vivo en Arrasate, y en su segundo libro, que está escribiendo, recalca la importancia de un yoga unido.

> SUDC ELKARTEA

Dinamizando Arrasate desde las sociedades gastronómicas

SUDC, la asociación de sociedades gastronómicas, lleva unos 60 años trabajando y organizando actividades. El pasado 23 de junio, la Tamborrada, una de las actividades más importantes, cumplió 50 años. Jose Luis Arkauz, el actual presidente de la asociación, nos ha informado sobre la celebración del aniversario.

Hace 60 años la asociación SUDC sólo la formaban cuatro sociedades: San Isidro, Udalpe, Danok Bat y Casino, y de ahí surgió el nombre SUDC. Hoy en día, ya son más de 25 sociedades. La junta la componen seis voluntarios que se encargan de organizar y proponer nuevas actividades durante el año.

La asociación no para de organizar actividades y la *temporada alta* de SUDC es entre mayo y junio. En Carnavales ellos mismos preparan el entierro de la sardina; en Semana Santa tiene lugar el campeonato de Doke, que ya es una tradición de la asociación. El campeonato de mus también se ha convertido en un clásico y todos los años compiten las sociedades locales. En mayo suelen celebrar el Día de los Jubilados y organizan una comida para unas 800-900 personas. En diciembre también suelen estar muy atareados, se encargan del cuidado de los participantes del campeonato internacional de acordeón.

Este año han puesto en marcha un nuevo proyecto para fomentar el euskera en las sociedades. Hasta ahora todos los documentos se han escrito en castellano y el objetivo es escribirlo en euskera y castellano. Pero la actividad que mayor preparación les requiere es la Tamborrada anual del 23 de junio.

50 aniversario

El pasado 23 de junio fue la quincuagésima vez que la Tamborrada

de los mayores salió a la calle. La asociación quiso que fuese especial: "Queríamos hacer algo diferente, recuperar viejas costumbres", explica Jose Luis Arkauz. La Banda y los abanderados fueron unas de esas costumbres. Hace años la Tamborrada siempre contaba con la Banda en lugar de la charanga; por ello, este año, a pesar del trabajo que les ha costado conseguir una, decidieron salir a la calle con la banda de Araia. Además, participó un abanderado de cada sociedad con su bandera correspondiente, cosa que en los últimos años no se ha hecho.

Con el objetivo de recordar a los seis presidentes que han pasado por SUDC durante estos 50 años, se les hizo un homenaje a todos ellos. A cada uno se le dio una placa y se le dedicó una canción durante la Tamborrada. Los participantes comenzaron a celebrar el aniversario antes de salir a la calle con los tambores, ya que cenaron todos juntos en el frontón, otra novedad de este 50 aniversario.

Han necesitado unos tres meses para organizar todos los preparativos. La participación de la gente ha aumentado en los últimos años y en esta edición han salido a la calle unas 200 personas. "Este año la sorpresa ha sido la cantidad de jóvenes que se ha apuntado, pero es cierto que hoy en día todos se animan a participar: hombres, mujeres, jóvenes y mayores" explica Arkauz. ■



Las abanderadas desfilando en la Tamborrada de 1981.



La joven compañía de los Escoceses en 1997.

Este año han puesto en marcha un nuevo proyecto para fomentar el euskera en las sociedades

HELDUEN DANBORRADAREN 50.URTEURRENA

Helduen Danborradak 50 urte bete zituen ekainaren 23an. SUDC elkarte urtero arduratzen da ospakizun honetaz eta aurtengoa berezia izatea nahi zuten. Ohitura zaharrak berreskuratu zituzten eta Banda eta elkarte bakoitzeko abanderadun bat gehitzeaz gain, SUDC elkartetik pasatako sei zuzendarietako omenaldia egin zitzaizen. Elkarte honek ez du Danborrada soilik antolatzen eta urtean zehar hainbat ekintza egiten dituzte.



Afari ederrak eskaintzen ditu Ibai-Arteren txartelak.

IBAI-ARTE EKIMENAK

Uneoro bezeroak saritzen

*Ibai-Arte, Arrasateko Merkataria eta Zerbitzu Elkarteak, 1992. urtetik ari da Arrasateko merkataritza bultzatzen. Gaur egun 165 saltoki dira berorren bazkide, eta guztiak elkarlanean bezeroei zuzendutako hainbat zozketa eta sari abiarazten dituzte. Ekai-
nean sari ugari eman badituzte ere, uztailea eta abuzturako gehiago iragarri dituzte.*

Urte hasieran erabakitzen dituzte urtean zehar egingo diren ekimen eta promozioak. Adibidez, Merkemerkaua otsailaren 26an egin zen. Saltokiak kalera atera zituzten, eta %70ko eta %80ko beherapenak eskaini zituzten. Ekimenak izandako emaitza ona ikusi ostean, irailean berriro egitea erabaki dute.

Gabonetako kanpaina ere antolatu ohi du urtero Ibai-Artek. Saltokietan argi

apaingarriak jartzen dituzte, loteria oparitzen da eta hainbat otzare zozketatzen dituzte erosketak Ibai-Arte txartelarekin egiten dituzten artean.

Arrasateko Merkataria eta Zerbitzu Elkarteak facebook-a ere badu. Bertan azaltzen dira merkataritzaren inguruko albisteak eta informazioa; eta, horrez gain, urtean egiten diren promozio eta ekimen berri ematen du sare sozial honek.

Ibai-Arte txartela

Ibai-Arte txartelak abantaila ugari eskaintzen ditu. Hiru urte daramatzate txartelarekin, eta helburu nagusiak promozioa egitea eta leialtasuna lortzea dira. Bazkideak txartela erabiltzean, zozketatan sartzen dira automatikoki eta, horrez gain, txartela erabiltzen duten bakoitzean, puntuak lortzen dituzte; 200

punturekin 10€ lortzen dira.

Otsailaren 15etik martxoaren 31ra zinemarako 500 sarrera bikoitz zozketatu zituzten. Maiatzan, 5€ko 300 bale; ondoren, hileko hirugarren astean ospatzen den baserri azokan erabiltzeko txartelak, baita merkatuan dauden baserriarren saltokietan ere. Uztailek 31 baino lehen erabili beharko dira bale horiek.

Udaran Ibai-Arte txartelak ez du oporrik hartuko eta uztailean bina pertsonentzako 30 afari zozketatuko dituzte Ibai-Arten dauden jatetxeetan erabiltzeko. Irailean, berriz, 100 sari banatuko dira eta bale horien irabazleek 15 egunetan zehar ogia dohainik izango dute. Urria eta azaroa bitartean, astero egun batean ezusteko beherapenak izango ditu bezeroak produktu guztietan, Ibai-Arteko saltokietan.

**Uztailean bina pertsonentzako
30 afari zozketatuko dituzte,
Ibai-Arten dauden
jaketxeetan erabiltzeko**



Uztailaren 2an 100 euroko txekak banatu zituzten Rural Kutxan.

IBAI-ARTE, PREMIANDO DURANTE TODO EL AÑO

Ibai-Arte se creó en 1992 para fomentar el mercado y los servicios de Arrasate. Durante el año ofrece actividades y organiza diferentes sorteos para premiar a los clientes: Merkemerkaua, la campaña de navidad... La herramienta vital para premiar a los clientes es la tarjeta Ibai-Arte. Todos aquellos que hacen la compra con la tarjeta entran automáticamente en los sorteos. En junio se hizo un sorteo especial y se premió a diez clientes con vales de 100€. Para verano tienen nuevas promociones, tales como 30 cenas para dos personas o el pan gratis durante dos semanas.

Ekainean 100€ko 10 bale zozketatu zituzten Ibai-Arte txartelarekin erosketa egiteagatik

Sari berezia

Ekainean, Ibai-Arte 100€ko 10 bale zozketatzea erabaki zuen. Erosketa Ibai-Arte txartelarekin egin zuten artean

egin zen zozketa eta saridunek uztailaren 2an jaso zuten balea Rural Kutxan.

Urte osoan sari ugari zozketatzen dituzte. Batzuetan asko baina txikiak, beste batzuetan, berriz, gutxi baina handiak. Ekainekoa horietako bat izan zen eta irabazle bakoitzari 100€ ematea erabaki zuten.

Bezeroek Ibai-Arteko txartela datafototik pasa bezain laster jakin izan zuten saridunak ziren ala ez. Irabazleak honako hauek izan dira: Maite Goikoetxea, Ana Belen Garcia, Miren Arizmendiarrirta, Ana Gil, Milagros Sebastian, Itziar

Muru, Itziar Unzueta, Jose Mari Salegi, Maite Sebastian eta Leire Urbieta.

Rural Kutxa da Ibai-Arte txartelaren partaide eta laguntzaile nagusia. Berak laguntzen du proiektu hau aurrera eramaten. Txartela bezero eta saltokien arteko harremana saretu eta sustatzeko erreminta oso garrantzitsua da, eta urtero erabiltzaile kopurua igotzen doa. ■



Errementari dantza

> Adinez nagusi egin da San Juan bezperako dantza

Errementari dantza dagoeneko tradizio bihurtu da Arrasaten eta jaiak hasteko ezinbesteko ekitaldia da gaur egun. Jose Ramon Vitoria musikagileak konposatu zuen eta 1993ko ekainaren 23an egin zen lehen aldiz. Aurten, ekainaren 23an, 18 urte bete ditu; adinez nagusi egin da, beraz.

Letraren egilea:
Jon Iñaki Isazelaiola

*Errementari jauna
klunka eta klunka
argi mailukiakin
begirik ez dauka*

*Gure auspoa oso
berotzen ez bada
etxera perratuta
bueltatuko gara*

*Suak, lana ta jai
martxan jartzen ditu
bata itxungi da ta
bestea ixotu*

*Herensuge sua
poliki emunik
behin erre ginen eta
berriz erre barik*



“Mondragonen kondaira hartzen du aintzat: mailuaren hotsa, dragoia, sua... Arrasateko ezau-garriak”

“Gaur egun, 200 parte-hartzaile inguru biltzen ditu: dantzariak, musikariak, konparttsako kideak...”

Arrasaten dantza herrikoi bihurtu bada ere, aurten 18 urte besterik ez ditu egin; 1993ko San Juanetan dantzatu zuten lehen aldiz. Jose Ramon Vitoria musikaria izan zen Errementari dantzako musikaren sortzailea eta gaur egun ezagutzen dugun ekitaldia egiteko beste zenbaitzuek ere parte hartu zuten: Haritz Solupek musikan lagundu eta orduko dragoiaren diseinua egin zuen; Arrasateko gaiteroek ere parte hartu zuten musikan; Jon Iñaki Isazelaiak bertso doinuak konposatu zituen; eta Lore Gazteak taldeko dantzariak osatu zuten koreografia.

Errementari dantza Mondragonen legendaren inguruan kokatzen da: errementariaren mailuaren

hotsa, dragoia, sua... Arrasateko ezaugarriak irudikatzen ditu. Festa giroko dantza izanagatik, badu solemnitaterik ere. Alkateak agurra egiten die dragoiari eta herritarrei plazan, errementari dantzariak inguruan dituela eta San Juan sua pizten du gero.

Herriko kaleetan zehar

Gaur egun, 200 parte-hartzaile inguru biltzen ditu: herriko musikari, dantzari eta konparttsako kideek parte hartzen dute.

Lehenengo kalez kale egiten dute dantza Herriko Plazara iritsi arte. Bertan harrera egiten zaio dragoiari eta alkatearen agurraren ostean, San Juan Sua pizten da

plazaren erdian. Su horren inguruan bukatzen da dantza; ingurutxo eta polka egiten dituzte dantzariak, erdian sua dutela. Une horretan, musikaren eta dantzaren bitartez jai lehertzen da Arrasaten.

Dragoi berria

1993an kaleratu zuten lehen dragoiak erretiroa hartu zuen 2007an. 2010ean, berriz berreskuratu zuten dragoiaren figura Errementari dantzarako. Kukubiltxo enpresa bizkaitarrak egin zuen eta arrakasta handiz estreinatu zuten iaz. Santa Barbarako dragoian inspiratuta egin zuten dragoi berria, haren anaia nagusi moduan, eta aurrekoak moduan, sua botatzen du ahotik.

> SARE SOZIALAK

Ibai-Artek facebooken lagun egitera gonbidatzen zaitu

Facebook... Nork ez du sare sozial honen berririk entzun? Gaur egun, teknologia berriak gure egunerokoaren parte dira eta ezin gara kanpo geratu. Sare sozialak XXI. mendeko komunikazio bide berriak dira. Horregatik, Ibai-Artek ere sarean egotea erabaki du eta facebooken orrialde propioa sortu du. Antolatzen ditugun ekintzen berri izan ahalko duzu, Ibai-Arte txartelarekin burututako promozio berriak komentatu ahalko dituzu eta klik batez zure Arrasateko saltoki gogokoenen berri ere izango duzu. Gure orria bisitatzera gonbidatzen zaitugu. Atsegin duzu?



> TÓMBOLA DE HARREMAN

Gran participación solidaria

Un año más y organizada por la ONG Harreman de Arrasate, se ha celebrado la XIII. edición de Elkartasun Eguna en Seber Altube. Al igual que en años anteriores, pusieron todo tipo de puestos de comercio justo: vino, pintxos morunos, té... además de la tómbola de Harreman y actuaciones para niños y mayores. Se han recogido mas de 180 regalos entre los asociados de Ibai-Arte destinados a la tómbola de Harreman y, en palabras de los organizadores, se vendieron "muy bien" casi todos los boletos. La tómbola ha tenido un gran éxito y ha participado más gente de lo habitual. Se han recaudado 3.920€ destinados al proyecto Ankur de India. El Orfanato Ankur de Bombay atiende a niñas abandonadas por sus familias, ofreciéndoles una vida digna y una preparación para el futuro.



> JORNADA INFORMATIVA

Jornada sobre prevención de riesgos laborales

El pasado 3 mayo, la asociación de comerciantes y servicios de Ibai-Arte organizó una jornada informativa sobre la ley de prevención de riesgos laborales. La jornada estuvo orientada principalmente al sector comercial y servicios de Arrasate y dirigida por Jesús María Altuna, ingeniero técnico superior en prevención de riesgos laborales de la empresa SIPREX. La finalidad de esta reunión era dar a conocer a los asociados la legislación vigente sobre la prevención de riesgos laborales.

> DEBAGOIENENKO I. PINTXO LEHIAKETA

Ekainaren 11n Debagoieneko I. Pintxo Lehiaketa ospatu zen

Lehiaketan Arrasateko lau tabernek hartu zuten parte: Rumba, Monte, Eroski eta Lukas Zerkaosteta; eta Aretxabaletako bik: Taberna Berrik eta Dagda Irish Pub-ek. Herritarrek pintxoak dastatzeko aukera izan zuten 3€-ren truke epaimahaiak erabaki bitartean. Lehen saria Eroskiko ordezkari den Sonia Berezibarrek eskuratu zuen, Boletus eta Bakailao pintxoarekin. Bigarren saria Aretxabaletako Taberna berrik eraman zuen eta hirugarren saria Lukas Zerkaostetako Felix Garrido eta Jokin Belategik osatutako bikoteak.



LEZETXIKI, JATORRIAREN LEIZEA

Paleolito garaiko bizilekua

1927an aurkitu zuen Jauregik kobazulo hau, baina lehenengo indusketak 1956an egin zituen Jose Miguel Barandiaranek. 12 urtez aritu zen leize honetan aztarna berriak bilatzen eta bertan aurkitu dira azkeneko hiru gizaki espezieen aztarnak. 1996an, berriz, Alvaro Arrizabalagak, Aranzadi elkartearekin, hartu zuen Lezetxikiren ardura.

Homo Heidelbergensis, Homo Neanderthalensis eta Homo Sapiens gizaki espezieen aztarnak aurkitu izan dituzte Lezetxikin. Gizaki fosilen erregistroa eta erregistro paleontologikoa anitzak dira bertan.

Barandiaran Frantziatik etorritakoan, aztarnategi honetara etorri zen eta 1956 eta 1968 urteen bitartean, ordura arte ezarri ez ziren teknikak erabili zituen. Izan ere, Frantzian oso ikerlari onak ezagutu zituen eta haietatik ikasi zuen.

Leize honetan egin diren aurkikuntzek oihartzun handia izan dute, eta ez Euskal Herri mailan bakarrik, baita mundu mailan ere. Aurkikuntzen artean honako hauek daude: Homo Heidelbergensis espezieko emakume baten humeroa; duela 150.000 urteko giza aztarnak; Homo Sapiens baten barailaren zati bat; eta azken aurkikuntza izan da Europako azken tximinoa izan daitekeenaren aztarna, Macaca Sylvanus espeziearena.

Leize-zuloa ez du tunel bakar batek osatzen. Barandiaranen taldea indusketetan ari zela, Leibar izeneko ikertzaile batek kobazuloaren adar bat aurkitu zuen. Orduki, Leibar deritzo koba-adar horri.

1927an Lezetxiki aurkitu zenetik egon den aurrerakuntza teknologikoa handia izan da. Teknologia berriek laguntzen dute indusketetan, baina zonalde txikiagoetan ibiltzera mugatzen du. Aurkikuntzak interpretatzeko asko lagundu

Aurkikuntzen artean dago Homo Heidelbergensis espezieko emakume baten humeroa

du teknologiak, eta bereizmen handiagoko irakurketa egin daiteke orain. Hala ere, orain polikiago ibili behar da, pausuz pausu egin behar baitira gauzak.

Pasabideko bizileku

Iberiar Penintsulako populazioa aztertzerakoan, hiru dira pasabide nagusiak: bat, Gibraltarretik pasatzen dena eta beste biak Pirinioetatik pasatzen direnak. Gibraltarreko pasabidea antza denez itxita

Lezetxikin topatutako azken aztarnetako batzuk; tartean Pleistozeno garaiko azken tximinoarenak.





Aztarnategia Garagartza auzoan kokatzen da.

Azken aurkikuntza da Europan zabaldua egon zen azken tximinoa izan daitekeenaren aztarna

egon zen ia kuaternario osoan; orduan, populazio mugimendu guztia Pirinioetako pasabideetatik ibili zen. Euskal Herritik sartzen zirenek, aztarnen arabera, Deba bailarako pasabidea jarraitu zuten eta askok Lezetxikin egin zuten egonaldia.

Gainera, pasabide hori ez da Historiaurrean bakarrik garrantzitsua izan; beste garai askotan ere oinarrizko bidea izan da. Adibidez, Erdi Aroan erromesek gehienetan handik egiten zuten Donejakue bidea.

1927an Lezetxiki aurkitu zenetik egon den aurrerakuntza teknologikoa handia izan da

Indusketa garaia

Aranzadi Zientzia Elkarteak dabil orain indusketa lanetan, baina mundu osoko arkeologoak gerturatzeko dira: Indiatik, Estatu Batuetatik... Estatuko unibertsitateetako ikasleak ere gerturatzeko dira indusketatik ikasteko. Diputazioak ematen dituen diru-laguntzak eta Arrasateko Udaletxearekin duten hitzarmenak indusketa garaiko lanak errazten dituzte. Izan ere, Arrasateko Udalak, egoitza bat eskaintzen die ikertzaileei bertan aste batzuetan bizi ahal izateko. ■



Aranzadi elkarteko kideak indusketa lanetan.

LEZETXIKI, UN TESORO PALEOLÍTICO

Jauregi descubrió Lezetxiki en el año 1927, pero las excavaciones comenzaron en 1956. Jose Miguel Barandiaran y su equipo trabajaron en este yacimiento durante 12 años. El registro de fósiles y el registro paleontológico son muy variados. Esa variedad de especies se debe a que durante años había mucho movimiento de población y muchos optaron por descansar en Lezetxiki. Hoy en día, la Sociedad Aranzadi se encarga de las excavaciones de Lezetxiki, gracias a la ayuda económica de la Diputación y a la ayuda del Ayuntamiento de Mondragón, ya que éste les presta un lugar donde poder alojarse durante las semanas de trabajo.

>Merkataritza Seinaliztapenerako proiektua

Herriko erdigunean eskuragarri dauden zerbitzuak nabarmentzeko hainbat ekimen abiarazi ditu Udalak



2010ean Arrasateko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Dinamizazioa programaren laguntzaz baliatuta, hiri merkataritza seinaliztapen proiektu bati ekin zion. Lehenengo urratsa seinaliztapen proiektu teknikoa egitea izan zen, eta hori 2010eko udan amaitu zuten. Baulan diseinu enpresak lagundu dio Udalarari zeregin horretan. Prozesu osoan Baulan enpresak, Ibai-Artek eta Udalaren Hirigintza eta Garapen Ekonomiko Sailek osatutako taldeak elkarlanean egin du lana.

Erdigune komertzialeko ikurra

Proiektuak, besteak beste, erdigune komertzialeko ikurra sortu du, marka gisara, "Arrasate Irekia" izenpean eta irudi propio batekin. Irudi horri lotuta, hainbat elementu diseinatu dituzte, eta helburua da informazioa ematea erdigune komertzialaren eremuan, maila desberdinetan. Proiektu horren baitan sartzen dira Arrasateko Gune Historikoko merkataritza zentro irekian dauden saltoki eta zerbitzu guztiak, honako multzoetan banatu dituztenak: elikadura, moda eta osagarriak, ostalaritza, banketxeak, aisialdia, osasuna eta edertasuna, eta bestelakoak. Gehienak saltoki eta

zerbitzu pribatuak badira ere, udal erakunde eta zerbitzuen berri ere emango du. Bestalde, eta erdigune komertzialaren mugatze gisara, "Arrasate Irekia"-ren logotipoa eremu horretako hiri altzari desberdinetan agertuko da.

Uztailean panela jarriko dute

Elementu berri horien ezarpena faseka planteatu da. Uztailean jarrita egongo da Merkataritza Seinaliztapeneko lehenengo elementua: erdiguneko saltoki eta zerbitzuen direktorioa. BAZeko (Bezereoen Arreta Zerbitzua) erakuslehoan jarriko dute, eta udal webgunean ere ikusgai egongo da. Han agertuko da Arrasateko erdiguneko komertzio eta zerbitzuen erreferentzia espaziala (non kokatuta dagoen bakoitza) kokapen mapa baten, eta baita zerbitzu motaren arabera antolatutako zerrenda idatzian ere. Direktorio honek informazio orokorreko puntu garrantzitsu bat izateko aukerak ditu, bai bertakoentzat, baita gure herriko erdigunera iritsitako edozein bisitarientzat. Zerbitzu eta komertzioen informazioaz gain, erdiguneko monumentu edo kultur balio bereziko eraikinak ere nabarmendu-ko ditu.



www.ibaiarte.com

Arrasateko Merkataria Elkartearen sarean gaude...

egin klik!



zure iragarkia hemen



Harremanetarako:
Aitziber Lasarguren
Tel.: 943 79 30 90
aitziber@debagoiena.net

180 x 80

Kalitaterik onena
zerbitzurik onenarekin
zure eskura

Arrasateko Merkataritza eta Zerbitzuak



La mejor calidad
con la mejor atención
a un paso

Comercios y Servicios de Arrasate

**AHOLKULARITZA / SEGURUAK /
INMOBILIARIAK**

ANBOTO
ASESORIA ARKUPE
MIKEL ELORZA
URRATS

ALTZARIAK / DEKORAZIOA

ARANZABAL
ARREGI ARTE
ARTE LENIZ
EHUNE
EYA ALTZARIAK
IKER
MUEBLES AMETS
OIHANA
ORMAZABAL
UDESIGN SHOP

ARGAZKI DENDAK

IKATZ
JM BERRUETA

BANKETXEAK

CAJA RURAL DE NAVARRA
LA CAIXA

BAZARRAK

CENTRO CIEN
TOKI ON

**BELAR DENDAK /
PARAFARMAZIAK**

IZADI BELARDENDA I
IZADI BELARDENDA II
AITOR BELARDENDA
BIOTIKA PARAFARMAZIA

BIDAI AGENTZIAK
ARRASATE BIDAIK
BARCELO VIAJES
EROSKI BIDAIK

BITXITEGIAK

OSKAR VITORIA
ZUBIAGA

ENTZUMEN ZENTRUAK / OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA
GAES

INSTITUTO OPTICO
ITZIAR UGARTE OPTIKA
MULTIOPTICAS
PORTALOI OPTIKA

GOZOTEGIAK / OKINDEGIAK

GALBURU
HEMEN
IRATZEDER
IZOKITEGI
MURUAMENDIARAZ

HOTELAK / JATETXEAK

ARTEAGA LANDETXEA
HAMA4
HILARION
HOTEL MONDRAGON
HOTEL SANTA ANA

**ILEAPAINDEGIAK / ESTETIKA
ZENTROAK / ILERAKO PRODUKTUAK**

ANGELA ESTETIKA ZENTRUA
BITXORI
DISTIRA
GORKA
LIRAIN
M.L

NO MAS VELLO

N&N SOL

RICHI

SALON HERMI

TXANPU

TOÑI

VIRGINIA

XARMA

ZIRT-ZART

JANARI DENDAK

AGIRRE-ETXE
AUTOSERVICIO FATIMA

AZPILIKUETA

BASOARTE

BASOARTE

CHURRERIA LA EXQUISITA

FELI

FRUTERIA PEREZ

GORKA HARATEGIA

LANDALUZE

OTAMENDI

SABURDI

SALEGI

SOLBES

JANTZI DENDAK

BOUTIQUE ELENA

GARRAXI

GILI-GILI

JIFH

KILI-KOLO

LASAGABASTER

LUKO

MABEL

MARKIEGI

MEHER

MERCHE

NOTHING WITHOUT

UDALAITZ

SUGAR

TROKO

ZONA 16

KIROL DENDAK

FORUM

LIZARRALDE KIROLAK

LORAMENDI KIROLAK

LORAMENDI KIROLAK

ERREKAMENDI

URIARTE SPORT

LORA DENDAK

BUART

MAYTE

ONTZI DENDA

LURRINDEGIAK

ALTUNA

GOIARA

LORE

ZABAETA

LENTZERIAK / MERTZERIAK

BEA

CASA DE LABORES

CECIAGA

ITXASO

JOSLE

LAUTARO

LILURA

OIHAL

PHILDAR

SIKOL

TELAS PILAR

TXURI-BELTZ

OPARI DENDAK

BEINKE

DORLE.M

ELKORO BISUTERIA

HIKA

KAPIKUA

LUXURY & FASHION NEILA

RESUSTA-KARRIKIRI

TABERNAK

AMETS

DUBLIN IRISH PUB

ITZALA

LORATEGI

MONTE

TXOKO 2

ZUK NAHI

TRESNA ELEKTRIKOAK

ALMACENES ARRASATE

ARANZABAL

EXPERT-ELKORO

EYA

MILAR ELKORO

UMEENTZAKO ARROPA

BC

HAURTXOA

TTIKITTO

TXUNTXURUNBERDE

UME

ZAPATADENDAK

ANES

ARTZ

KORO ZABAETA

OSKARBI

TIPI-TAPA

ZUBIA

BESTEAK

ADM.LOTERIA N°1

ALDEDI

ARRASATE ZOO

BED'S

CLINICA DENTAL ARREGI

DANATEK

DEBA PREST TINDATEGIA

EKOBAI BIRZIKLAPENA

ESTACIÓN DE SERVICIOS ARRASATE

J.G. IMPRESIÓN DIGITAL

MICROS INFORMATIKA

PARLANCE HIZKUNTZA AKADEMIA

PORTALOIKO KIOSKOA

TAMAYO PAPER DENDA

VODAFONE

ZUR LUR JOSTAILUAK